



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-06-22

VIII. URTEA 2.033. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

'Mokolo gau batez' kontzertua herriko taldeen eskutik, ostiralean

TOLOSA Manent, Desordutan, Bide Ertzean eta Peachy Joke taldeek eskainiko dute emanaldia 22:30etik aurrera

KOLABORAZIOAK Anjel Mari Peñagarikano, Inde Kitxen taldea eta Bonberenea txarangak ere hartuko dute parte 2



Iñigo Asensio, Denis Ruiz eta Jokin Monfort izan ziren atzoko aurkezpenean. I. TERRADILLOS

AITOR IRAOLA
PIANO-JOTZAILEA

«Nire ametsa egunen batean musikatik bizi ahal izatea da, bizitzako aldiren batean behintzat»

ALEGIA 8 urte besterik ez zituela hasi zen pianoa jotzen; bere asmoa Fisikako karrera ikastea da 3



MIKEL ARTOLA



harpidedun izateak badu saria

① Afaria

Denak tabernan lau pertsonentzako afaria



② Abonoak

Tolosako uztaileko zine-klubarako bi abono



③ Diskak

Gaztelupeko Hotsa-en eskutik, Hotsak Dantzan 2 eta Gasteiz Big Band-en Bing Bang! disken bina ale



④ Liburuak

Amesgaiztoa Egunkaria auziko epailetaren kronika liburuaren bi ale



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedun **TXOKOA hitza**

Eskualdeko musikarien omenaldia jasoko du Mokolo pailazoak

Tolosa » 'Mokolo gau batez' kontzertua eskainiko dute, Manent, Desordutan, Bide Ertzean eta Peachy Joke taldeek, ostiralean.

INIGO TERRADILLOS

Bere lankide izandakoen, hau da, pailazoaren eskutik omenaldi beroa jaso ostean, eskualdeko musikarien txanda da orain. Mokolo pailazoaren omenaldia *Mokolo gau batez* kontzertua eskainiko dute Manent, Desordutan, Bide Ertzean eta Peachy Joke taldeek beste hainbat kolaboratzaileen laguntzarekin. San Joan jaien barruan izango da emanaldia, ostiral honetan, hilaren 25ean, 22:30etik aurrera, Euskal Herria plazan.

Denis Ruiz Manent taldeko abeslaria hasi zen Mokolori omenaldia egiteko ideia garatzen. «Inaki eta biok lagun minak ginen;

nere barnean asko zor niola sentitzen nuen eta horregatik zerbaitez berezia egin geniezaiokeela pentsatu nuen», azaltzen du Ruizek. Parte hartuko duten gainerako musikari edota artistek ere «ezagun edota lagun» zuten Inaki Odriozola *Mokolo* eta haren omenaldia ekitaldi bat egiteko beharra ikusi zuten. «Benetan eskertzekoa izan da eskualdeko musika taldeen erantzuna, Mokolori egin nahi diogun omenaldian sinistubaitute, eta euren babesa eta laguntza eman digute, musutruk, gainera», azaltzen du Inigo Asensiok Manent taldeko kideak.

Musika, bertsoak, txaranga...

Manent, Desordutan, Bide Ertzean eta Peachy Joke taldeek eskainiko dute kontzertua, baina beste hainbaten parte-hartzea ere izango du emanaldiak: «Anjel Mari Peñarikano bertsolariak Mokolori eskainitako bertso bat abestuz har-



Jokin Monfort kultur teknikaria eta Manent taldeko Denis Ruiz eta Inigo Asensio, atzoko aurkezpenean. I.T.

tuko du parte; Inde Kitxen taldeak ere abesti bat eskainiko dio, eta Bonberenea txarangakoen doinuek ere ez dute hutsik egingo», gehitzen du Asensiok. Jende ugari hartuko du parte, baina, dioten bezala, «eszenatikira igoko ez diren arren, herriar ugari parte hartu nahi izan du era batera edo bestera».

Horiez gain, beste hainbat osagai eta sorpresa ere izango ditu emanaldiak. «Une hunkigarriak bizituko ditugu, baina era berean, festa handi bat izatea ere nahi dugu, Inakik bizi izan zuen alaitasuna eta poztasuna present egongo delarik». Antolatzaileek gogo-

ratzen dutenez, «Inakiren omenaldia ekitaldia izango da, baina baita laguneri eta familiari ere, eta guztiarentzat jai polita izatea gustatuko litzaiguke».

Bestalde, ekitaldia antolatzeko orduan Udalaren aldetik jaso duten babesa ere eskertu nahi izan dute: «Euren aldetik ekitaldia antolatzeko erraztasunak baino ez dizkigute jarri, beraz eskerrak eman behar dizkiegu». Jokin Monfort Udaleko kultur teknikariak azaldu bezala, «Udalari hasieratik ideia oso ona iruditu zitzaion, eta Udala da antolatzaileei esker ematen dizkiena lan handia egin baitute».

» DATUAK

- **Emanaldia.** *Mokolo gau batez* kontzertua, Mokoloren omenaldia.
- **Noiz eta non.** Ostirala, hilaren 25ean, Euskal Herria plazan.
- **Parte-hartzaileak.** Manent, Desordutan, Bide Ertzean, Peachy Joke eta beste hainbat lagun.

'Pailazo' abestia lehen aldiz

Manent taldeak egun gutxiaren buruan kaleratuko du bere hurrengo lana, eta disko horretan Mokolori eskainitako abesti bat egongo da, *Pailazo* izenekoa. Bada, kanta hori bere omenaldia jaialdian izango da entzungai lehen aldiz.



Giro polita zortzigarren betizu jatean

AMEZKETA » Zortzigarren urtez, Ugarteko auzotarrentzat hitzordu garrantzitsua dena izan zuten iragan larunbatean, betizu jatea, alegia. 100 lagun baino gehiago bildu ziren, eta oso giro polita izan zuten. 80 kilo betizu prestatu zuten eta guztia jan zuten. «Primerako

haragia izan zen, eta oso ondo erre, jendea oso gustura geratu zen jandakoarekin. Erretzaileek, Josebak eta Xabierrek, oso lan ona egin zuten, beraz», adierazi dute. Trikitixa doinuak ere izan zituzten urtero bezala, eta Jose Otamendi bertsoan aritu zen. HITZA

Laburrak

Txistulari eta Musika Bandaren kontzertua, etzi

TOLOSA » Tolosako eta Iruñako Udal Txistulari bandek eta Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko dute etzi, San Joan jaien barruan. Emanaldia 13:00etan hasiko da, Berdura plazan. Inaki Letamendiaren zuzendaritzapean Tolosako eta Iruñeko udal txistulari bandek *Labirulena*, *Sorgin dantza* eta *Adiskide lasaia* piezak joko dituzte. Tolosako Musika Bandak, berriz, Luis Mari Gartziairen zuzendaritzapean *Carmen*, *The girls of Jobim* eta *El relicario* joko dituzte. Horien aurretik, kontzertuaren bigarren zatia hasiera emateko, *Virgen blanca* joko dute hiru bandek elkarrekin.

Ritxi Lizartzaren hitanoari buruzko hitzaldia, gaur

TOLOSA » Gaur Ritxi Lizartzak hitanoari buruzko hitzaldia emango du Elduaian hizkuntza eskolak antolatu. Hitzaldia 18:30ean hizkuntza eskolan izango da. Lizartzak *Mintza hadi, lagun!* eskuliburua kaleratu zuen iazko Durangoko Azokan eta dagoeneko ehunka lagunek eskuratuta dute.

Asis Sarearen otoitzaldi bilkura izango da etzi

TOLOSA » Asis Sarearen otoitzaldi bilkura izango da etzi, 19:30ean hasita, Klarisen komentuan. Informazio gehiagorako 646 21 48 96 zenbakira dei daiteke.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.


610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

AITOR IRAOLA Piano-jotzailea



M. ARTOLA

«Pianoa jotzen dudanean ahaztu egiten ditut arazo guztiak»

Alegia » 8 urterekin hasi zen pianoa jotzen Aitor Iraola, eta geroztik egunero hartzen du horretarako tartea.

MIKEL ARTOLA

Piano-jotzailea eta gaztea da Aitor Iraola (Alegia, 1986). Umetatik du musikarako afizio handia, eta egunetik egunera hobetze lanetan ordu gehiago igarotzen dituela dio. Badaki pianoa ezezaguna dela gazteen artean, baina berak instrumentu hau jotzen gozatzen du. Orain gutxi herritarrek bere abileziarekin txundituta utzi ditu. Guk bere langelan harrapatu dugu.

Txintxarri abesbatzaren urteurrena zela eta herrian kontzertua emateko aukera izan zenuen lehengoan. Zer moduz joan zen?

Oso ondo joan zen dena, disfrutatuta egin nuen. Oso gustuko dut jende aurrean aritzea, baina horretarako

aukera gutxi izaten da. Loatzo musika eskolako emanaldietan aritu izan naiz orain arte, eta azkenaldian orain gutxi sortu dugun taldearekin nabil, Keiran taldearekin.

Pianoa jotzen ezagutu zaitugu beti, zergatik instrumentu hau?

Egia esan ez dut uste asko pentsatutako gauza izan zenik. Nire lagun bat pianoa jotzen hasi zen ume nintzela, eta hura ikusita hasi nintzen. Geroztik ordea, ez dut pianoarekin jarraitzeko dudarik izan, nahiz eta gitarra jotzen ikastea ere gustatuko litzaidakeen.

Nola gogoratzen dituzu hasi zineneko garaiak?

Zortzi urte inguru izango nituen pianoa jotzen hasi nintzen garaian, Tolosako Jexux Mari Esnaola irakasle nuela. Gogoan dut hasiera gogorra izan zela, hutsetik hasten zarenean ez du batere itxura onik izaten jotzen duzunak, eta kosta egiten da aurrera egitea. Gerora ordea, lehenengo etapa hori pasatuta, gozatzeko garaia ere iristen da.

Orain ere irakasle berarekin jarraitzen al duzu?

Ez. Loatzo musika eskolan ibili naiz azken boladan, baina badira pare bat urte autodidakta bihurtu nintzela. Hala ere, datorren urtean Bilbora noa ikastera eta baten irakasleren bat aurkitu nahi nuke, ba-

tez ere estilo berriak probatu nahi ditudalako. Jazz musika da horietako bat, inprobisazioak garrantzia handia du eta horrek erakartzen nau.

Bilboko ikasketak musikarekin lotutakoak al dira?

Ez, Fisikako karrera egiteko asmoa dut. Musikarekin zerikusirik ez duen zerbait ikastea erabaki dut, erabat bestelakoa den zerbait ikasi nahi dut. Musika beti egongo da hor nire bizitzan, baina bestelako gauzak ere ikasi nahi ditut, ez dut alde horretara bakarrik mugatuta egon nahi. Gerora irakasle izateko gogoia dut, ea karrera honek horretarako aukera ematen didan.

Zer ematen dizu pianoa jotzeko? Zer da zuretzat musika?

Pianoa jotzen dudanean ahaztu

egiten ditut beste kontu guztiak, hustu egiten naiz. Musikak lasaitasuna eta aurrera jarraitzeko indarra ematen dit. Nire arazoak ahazten ditut, nolabait esateko, beste mundu batean sentitzen naiz. Horixe da gustatzen zaidana.

Konposatzea ere gustuko omen duzu...

Bai, hala da. Niretzat garrantzitsua da sorkuntza, denbora dezente eskaintzen diot lan horri. Orain gainera, taldean ere aritzen naizenez, sorkuntza lan hori jende aurrera eramateko aukera dugu entzuleak

«Nire ametsa egunen batean musikatik bizi ahal izatea da, bizitzako aldiren batean behintzat»

«Musikaz gain bestelako gauzak ere ikasi nahi ditut, horregatik noa Bilbora»

gure musika nolakoa den ezagutu dezan. Herrian bakarrik aritu nintzen, baina taldeak aukera gehiago ematen du horrelakoetarako, gainera beste goxotasun bat eskaintzen du.

Zein da zure pianistari gustukoa? Ba al duzu eredurik?

Ba egia esan ez dut inor eredutzat. Musika entzuten baino denbora gehiago pasatzen dut jotzen.

Zenbat denbora eskaintzen diozu musikari?

Egunero aritzen naiz, ordubete eskaintzen diodala esango nuke, ahal dudanean behintzat. Boladak ere izaten ditut, aldi batzuetan ordu asko sartzen ditut, eta beste batzuetan, berriz, gutxiago. Baina garrantzitsuena eguneroko lana da, gainera, hobetzen zoazen heinean afizioa ere handitu egiten da.

Afizioa ofizio bihurtzeko asmorik ba al duzu?

Nire ametsa musikatik bizitzea da, nire bizitzako aldiren batean behintzat. Baina horretarako lan handia egin beharra dago, eta gainera suerte handia behar da, dena ez dago musikariaren esku eta horrek zaildu egiten ditu gauzak. Pixkanaka-pixkanaka hobetzen joatea da helburua, denborak erakutsiko du horretarako zortea izango dudana.

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2010eko ekainaren 7an egindako bileran, hasierako onespina eman zion, zenbait baldintzarekin, ORUBIDE, S.A.k sustatzen duen, 20.1 Amartz Paperera azpiesparrua Urbanizatzeko Jarduketa Programari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 156.3 artikulua araberako, espediente jendaurrean 20 egun egongo da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Espedientea aztergai egongo da aipameneko epaieren barruan, Tolosako Udaleko Hirigintzako Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B). Alegazioen idatziak Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Alegaziorik aurkezten ez bada, UUP behin betiko izaeraz onaruko da Alkatetza Dekretuaren bitartez.

Tolosan, 2010eko ekainaren 10an. ALKATEA

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Alkatetza honek, 2010eko ekainaren 7an, 965/2010zk. dekretuaren bitartez, hasierako onespina eman zion azpiesparru "13.1 San Frantzisko Pasealeku"-ko Hitzarmenaren aldaketari Hirigintzako Egikaritze Hitzarmenaren proposamenari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Gehigarriko 8. apartatuaren arabera, espedientea 20 egun egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaleko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epaeldiaren barruan.

Tolosan, 2010eko ekainaren 15ean. ALKATEA.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Apartamentua.** Peñiscolan 7 pertsonentzako apartamentua salakatzetan da. Hondartza aurrean dago eta balkoia, haize egokitu, igogailua, parkina eta bigerileku ditu. 617-42 89 52.

Internet onena,
etxe barruan

BARRUAN ZUNTZA

18M



San Pedro jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan

Aisia » Urkizu auzoko Jaiak larunbatean hasiko badira ere gaur bertan Et Incarnatus-en kontzertua entzun ahal izango da.

ren eskutik. Kontzertua eta gero jana eta edana banatuko dituzte bertaraten direnen artean.

Alurtxiki elkartetik azaldu dute-nez, kontzertu gunera oinez joan

beharra dago: «pasa den asteke euriak direla eta ezin baita autoz igo». Halaber, antolatzaileek esertzeko plastikoak eramatea ere gomendatzen dute.

» EGITARAUA

ERREDAKZIOA

Pixkanaka pixkanaka ari dira jaiak nagusitzen eskualdeetako bazter askotan, eta Tolosako Sanjoanekin batera Urkizu auzoko San Pedro jaien txanda izango da asteburu honetan.

Era berean, gaur bertan 19:30ean izango den kontzertua aipatu dute. Izan ere, urteroko moduan XI. Solstizio Kontzertua izango da Iraola Zuloa izeneko tokiari (telekomunikazio antenaren inguruan), Et Incarnatus orkestra-

Ekainak 26, larunbata

- **12:00.** Suziria eta kanpaiak.
- **13:30.** Auzoko umeen bazkaria eta ume jolasak.
- **18:00.** Ate Joka antzezlan (Txalo produkzioak).
- **21:00.** Auzoko afaria bertsolari eta trikitilariekin.

Ekainak 27, igandea

- **11:00.** Tortilla lehiaketa.
- **11:30.** Auzoko erabileraren anitzeko gunearen inaugurazioa.

- **12:00.** Tortilla dastatzea eta Sargardo Lehiaketa.
- **12:30.** Toka Txapelketa.
- **18:00.** Umeen jokoa eta txokolata.
- **18:30.** Bolo Lehiaketa.
- **Egun osoan zehar** umeentzako puzgarriak eta trikitilariak.

Ekainak 29, asteartea, San Pedro Eguna

- **11:00.** Meza Nagusia eta ondoren hamaiketakoa.



Venta de Bañosetik gertuago

SENIDETZEA » Tolosa eta Palentziako Venta de Baños herriak senidetu egin dira jada. Herenegun egin zuten senidetze ekitaldia eta Edurne Pasaban mendizalea eta Marta Dominguez atleta izan ziren amabitxiak.

Era berean, Tololako alkatea, Jokin Bildarratz, Venta de Bañoskoa, Consolacion Pablos, eta Abraham Olano zein Andoni Imaz kirolariak eta Iñaki Arratibel medikua izan ziren ekitaldian. HITZA



Jende ugari bildu zen herenegun Xepla elkartearen egindako gazte bazkarian; ondoren Xiba jokoak izan zituzten. HITZA

Festek emandakoarekin gustura dira antolatzaileak

Ibarra » Igandeari «indarra eta bizitasuna ematea» zen Gazte Asanbladako helburuetako bat, eta lortu dutela diote.

ERREDAKZIOA

Hiru egunetako jai eta zurrunbiloren ostean, garbiketa eguna izan zen atzokoa Ibarren. Ostiral iluntzean pilota partidekin ekin zieten jaiari eta herenegun, Desordutan talde tolosarraren doinuekin amaiera eman.

Lehendabiziko egunetan, eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, eta hau larunbat gauean nabaritu zen batik bat. Hala ere, Ibarako Gazte Asanbladako oso gustura daude aurtengo jaiak eman dutenarekin. Beraien helburuetako bat igandeari, hau da azken egunari, indarra eta bizitasuna ematea zen, eta antolatzaileen esanetan, lortu

dute. Euskal herrien arteko euskal jokoen VII. Xiba jaialdia jokatu zen herenegun arratsaldean, eta honek jende ugari bildu zuen. Zazpi herri aritu ziren lehia: Zizurkil, Idiazabal, Asteasu, Tolosa, Ibarra, Oñati eta Hernani. Garaile eskualdeko batzuk izan ziren, Zizurkilgoak, hain zuzen ere. Bigarren Idiazabalgokoak sailkatu ziren eta hirugarren, Asteasu. Hauek burututako proben artean zeuden, sokatira, harri-jasotzea, lasto fardo tiratzea, ingude altxaketa, txingak, trontza, zakua eramatea, dantza eta xiba.

Larunbateko parrandaren ajearekin bazen ere, antolatzaileen esanetan, jende ugari elkartu zen igandeko gazte bazkarian. Xepla elkarteak arduratu ziren hau prestatzeaz. Ondoren, Pototxotx bertso eskolakoak saio egitea aurreikuspen zuten, baina azkenean huts egin zuten.

Aipatu bezala ostiral gauean

hasi ziren Gazte Festak. Suziria jaurti ondoren pilota txapelketako finala jokatu zen. Mattin eta Aratz izan ziren aurrez aurre, eta horietan irabazle, lehendabizikoa izan zen, 22-16ko emaitzarekin.

'Tortillada' eta kontzertuak

Aurtengo jaien baitan ospatutako ekitaldien baitan, *tortilladarena* ere nabarmendu zuten Gazte Asanbladakoek. Sendi ekintzak antolatutako meriendatxoan jende ugari bildu baitzen.

Urtero legez, kontzertuak izan ziren ekitaldi jendetsuenetako batzuk. Ostiralean, Vendetta eta Lain taldeak igo ziren eszenatokira. Larunbatean berriz, Laiotzekoak. Hemen, parrandan zebiltzanek, gauean zehar egin zituen aterune txikiak aprobetxatu behar izan zituzten dantza pixka bat egiteko. Eguraldiak ez baitzien lagundu larunbat gauean parrandara atera zirenei.

Leitzaran eta Sakana zeharkatuko dituzte Langostiko elkarteak

Ibarra » Larunbat honetarako, hau da, hilaren 26rako, antolatu dute aurtengo seigarren bira; Nafarroa aldera joango dira.

ERREDAKZIOA

Langostino Moto Kultur elkarteak hilabeteari amaiera emateko, irteera bat antolatu du. Hilaren 27an, 09:30ean abiatuko dira San Bartolome plazatik, eta Nafarroa aldera joango dira. Gipuzkoatik, Tolosal-

detik irten eta Leitzaran nahiz Sakana baillararak zeharkatuko dituzte motorgainean

Ibilbidea honakoa izango da: Ibarra, Lizartza, Betelu, Lekunberri, Irurtzun, Errotz, Atondo, Baldagoñi, Anotz, Lizarbe, Olo, Artea, Goñi, Urdanotz, Azantza, Saldise, Anotz, Atondo, Irurtzun, Madotz, Oderitz, Astiz, Alli, Lekunberri, Huitziko Mendatea, Leitza eta Berastegi. Aurreikuspen arabera, 13:30ak aldera iritsiko dira bueltan, Ibarra.

Goñin, Estebarena Jatetxean

egingo dute hamaiketako. Hori dela eta, zenbat izango diren jakitea beharrezkotzat jotzen dute antolatzaileek eta izena aldeztu aurretik emateko eskatu dute. Posta elektronikoz, *langostinomotofesta@gmail.com* helbidean, edota hurrengo telefono zenbakietara deituta egin daiteke: 670 41 79 15 (Moski) edo 675 71 25 05 (Muyi).

Ekainekoa, aurten egiten duten seigarren irteera da. Gainontzekoetan bezala, antolatzaileen esanetan, «bira hau edozein motorrekin egiteko modukoa da».

eta handik kanpo

KANPOAN
 + INTERNET MUGIKORRA

euskaltel 2in1

20,9€ / 17€

Deitu 1717ra - www.euskaltel.com

E **Emaizak****PILOTA****NAFARROAKO
HERRIARTEKO TXAPELKETA
Leitza-Baztan (1-3). Ligaxka****ALEBINAK**A. Aldurtzin-Jon Lezea 12
Baztan 18**INFANTILAK**A. Olano-M. Sagastibeltza 18
Baztan 2**JUBENILAK**X. Jaunarena-Hernandorena 8
Baztan 22**SENIORRAK**I. Zubillaga-M. Iriarte 22
Baztan 14**HERRERAKO TXAPELKETA
FINALA****KADETEAK**A. Olano-Tolosa 22
Zelaia-Iruretagoiena 14**LIZARRAKO TXAPELKETA
FINALA****INFANTILAK**X. Zubiria-A. Garziarena 18
Jamar-Andueza 12**SOKATIRA****LUR GAINEKO SOKATIRA
TXAPELKETA, 640 KILOTRAN****AZKEN JARDUNALDIA**1. Goiherri A (Erandio) 13 tanto
2. Mutriku 13 tanto
3. Areso 9 tanto
4. Gaztedi (Laukiz) 4 tanto
5. Getxo 2 tanto
6. Goiherri B 1 tanto**SAILKAPEN NAGUSIA**1. Goiherri A (Erandio) 17,5 puntu
2. Mutriku 15,5 puntu
3. Areso 11,5 puntu**HARRI PROBA****AIAKO APUSTUA**1. Izeta II.a 159 jasoaldi
2. Gizon proba taldea 71 plaza***Gizon proba taldearen lan bikoitza gainditu behar zuenez harrijasotzaileak (142 jasoaldi), apustua Izeta II.ak irabazi zuen.****IPARRALDEKO JOKOAK****HARRIASOTZAILAK**1. J. Urrutia (Leitza) 3.837,5 kilo
2. Xabier Igoa 3.487,5 kilo**TXINGAK**1. Imanol Martin 13 plaza
2. Josetxo Urrutia (Leitza) 7 plaza**ARRAUNA****DEBAKO ESTROPADA****AZKEN SAILKAPENA**1. Getaria-Tolosaldea 12:32"
2. Zumaia +0:17"
3. San Juan +0:22"
4. Bizkaia +0:23"
5. Orio +0:34"**MENDI LASTERKETA****TXINDOKI BERTIKALA****GIZONEZKOAK**1. Didier Zago 34:33"
2. Walter Becerra 36:31"
3. Zuhaitz Ezepeleta 36:59"
4. H. Aichau, (Villabona) 37:00"**EMAKUMEZKOAK**1. Nerea Arnilibia 42:37"
2. Elena Calvillo 46:10"
3. Yolanda Gurendez 47:17"**BETERANOAK**

1. Juan Mari Garin (Zizurkil) 37:44"

XAKEA**XAKE TXOKOAREN TXAPELKETA****ANOETA**1. Ekaitz San Sebastian kapitainaren taldea
2. Ane Sanchez kapitainaren taldea.
3. Koldo Descalzo kapitainaren taldea.
4. Gaizka Zuaznabar kapitainaren taldea.**TXIRRINDULARITZA****ZIZURKILGO VI. SARIA****SAILKAPEN OROKORRA**1. Leire Olaberria
2. Cristina Alcalde
3. Ane Santesteban**JUNIORRAK**1. Irene Usabiaga
2. Dorleta Eskamendi**KADETEAK**1. Zuriñe Viana
2. Alizia Gonzalez
3. Seila Gutierrez

Aurtengo denboraldian zehar lehen taldearekin jokatu duten Intxurreko jokariak. HITZA

«Baldintza gogorretan» baina Intxurrek mailaz igotzea lortu du

Alegia » Igoera Fasea hamar fitxekin jokatu dute, falta ziren jokariak jubeniletatik hartu behar izan dituzte.

ASIER IMAZ

Intxurreren lehen futbol taldeak denboraldi «ikaragarria» egin du. «Zorte» lagun, Erregional Preferente mailara igotzea lortu dute. Hurrengo denboraldian beraz, talde indartsuen aurka jokatzeko aukera zaie alegiarri.

Denboraldi gorabeheratsua

Erregional Lehen Mailan gauzak ongi joaten baldin badira, Igoera Fasea jokatzeko duzu. Sailkapenaren puntan ez baldin baduzu amaitzen berri, Kopa jokatzeko aukera izaten da. Ongi egindako lanari esker, Intxurrek Igoera jokatzeko aukera izan du aurtengoan.

Lehia honetan sartu ziren taldeak bi multzotan banatu zituzten. Multzo bakoitzeko lehen biek, Erregional Preferentean jokatzeko aukera eduki ohi dute. Aurtengo ordea, hirugarrenak eta laugarrenak igotzeko aukera eduki dute. Intxurre laugarren gelditu zen Igoera Fase honetan.

Preferentean jokatzeko ari zen UPV-EHU futbol taldeak bere lekuari uki egin ostean, talde baten zatitza zuloa gelditu zen maila horretan.

Hutsune hori betetzeko, Donostiako Lengokoakek eta Intxurrek kanporaketa jokatu zuten. Etxean eta kanpoan, 2-0 irabazi ostean, alegiarrak igo dira Preferente mailara.

Patxi Renobalesen esanetan, lorpen hau «ikaragarria» da: «Denboraldia oso jokari gutxierra izaten da. Ongi egindako lanari esker, Intxurrek Igoera jokatzeko aukera izan du aurtengoan.

izan dugu eta hala eta guztiz ere igoera lortzea ikaragarria da».

Mutil gazteak sartu dira taldean eta etorkizunari begira ona baldin bada ere, Preferentean dagoen maila kontuan hartuta, hurrengo denboraldian «mantentzea» izango da helburua. «Eta horretarako nahiko lan izango dugulakoan nago», onartu du Renobalesek. «Maila honetan herri handiek euren lehen taldeak dituzte. Gu berriaz 1.800 biztanleko herria gara eta zaila izango da. Aurtengo bezala, gakoak etxeko partidetan egongo da».

Fitxaketen inguruan, dagoena mantentzearekin gustura agertu da Renobales. «Gurean horrelako gauzak ezinezkoak dira. Pentsa, gure jokariak euren fitxa ordaindu behar izaten dute».

Irailaren 12an hasiko da denboraldi berria eta Intxurrekoak abuztuaren erdialdean elkartuko dira, denboraldi-aurrea egiteko.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Olaberriak irabazi du Zizurkilgo saria

TXIRRINDULARITZA ■ Nesken Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen igandean Aiztondo bailarako errepideetan. Zizurkilgo VI. Saria hiru mailatan banatuta zegoen: kadeteak, juniorrak eta eliteak. Euskal Herriko txirrindulariez gain, estatu mailakoak ere bertan izan ziren. Guztira, 80 bat txirrindulari inguru lehia-tu ziren. Euskaldun Trofeorako puntuagarria zen lehia ikaztegitako Leire Olaberriak irabazi zuen, bizikleta gainean 100 kilometro egin ondoren. Bere atzetik Cristina Alcalde eta Ane Santesteban sailkatu ziren. Junior mailan Irene Usabiagak irabazi zuen lasterketa. Hauek 74 kilometroko ibilbidea egin zuten. Kadeteetan Zuriñe Viana nagusitu zen. Irteera puntua Villabonan baldin bazegoen ere, helmuga eta sari banaketak Zizurkilen ospatu ziren. SARA GOMEZ



Olanok beste txapel bat lortu du

ARESO ■ Larunbatean Nafarroako Herriarteko Txapelketaren partida jokatu ostean Leitzarekin, Anartz Olano aresoarrak Herrerako Txapelketaren finala jokatu zen igandean, Tolosa lagun zuela. Aurkari bezala Zelaia eta Iruretagoiena izan arren, Olano-Tolosa bikoteak nahiko erraz irabazi zuen kadete mailako finala, 22-14ko emaitzarekin. Aurrelari aresoarra gazte mailan ibilbide ederra egiten ari da, txapelez gain joko bikaina erakutsiz. HITZA



Xake Txapelketa txit berezia

ANOETA ■ Joan den larunbatean ospatu zen Xake Txokoaren Txapelketa Anoetako kirolegian, eta Oihana Etxenike eta Bixente Etxenike egon ziren epaile lane-tan. Xake Txokoaren Txapelketa familia giroan ospatzen da, eta haurrez gain, amek, aitek, amonek, izebek, osabek, aitonek... parte hartzen dute. Haurren kasuan, guztira 30 partaide egon ziren, 4 taldetan banaturik. Helduen artean emakumeak 8 izan ziren, gizonetakoak 10 eta amonak 3. Talde bakoitzak kapitain

bat zuen, eta 5 saio jokatu ondoren, Ekaitz San Sebastian kapitainaren taldeak lortu zuen lehen postua. Hala eta guztiz ere, talde guztiek eraman zuten saria etxera. Bestalde, aipatu behar da Donostiako, Urretxuko eta Legazpiko ume batzuk gonbidatuta zeudela parte hartzea, eta oso gustura aritu zirela, eta denek eraman zutela domina oroigarri gisa. Aurtengo kamisetak eta trofeoak Orbinox enpresak finantzatu ditu. HITZA

Aresok hirugarren postua lortu du 640 kilotan

ERREDAKZIOA

Goiherri A taldeak irabazi du lur gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketako 640 kiloto txapela. Igandean jokatu zen pisu honetako hirugarren eta azken jardunaldia, Aian, eta Erandioko (Bizkaia) taldeak irabazi ez zuen arren, eutsi

egin zion aurreko bi jardunaldietan lortutako aldeari. Azken saio honetan Mutrikuk lortu zuen tiraldi bat irabaztea txapeldunei, eta, horri esker, parra egin zuten jardunaldiko sailkapenean.

Lur gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketako zazpigarren

saioa izan zen igandekoa. Horrenbestez, bidearen erdia egin dute tiratzaileek, 600 eta 580 kilotako txapelketak geratzen baitzaizkie.

Aresoko taldeak denboraldia ez zuen oso ongi hasi, baina 640 kilotoan maila bikaina erakutsi dute tiralariek eta maila honetako hiru

jardunaldietan hirugarren postuan jaun eta jabe izan dira.

Orain, 600 kilotan

Lur Gainekoak jardunaldi berri bat edukiko du hilaren 27an, Loiu. 600 kilotako txapelketaren lehen jardunaldia jokatu da ber-

tan. Aresok jokatu duen azken lehiak izango dira hauek, 580koan ez baitute naparrek parte hartuko.

Igandeko norgehiagokak 11:00etan hasiko dira. Bigarren jardunaldia uztailearen 3an izango da Amoroton eta hirugarrena San Cristobalen, uztailearen 10ean.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Kultur Etxea zezen-plaza bihurtuta

ALBIZTUR • Chiclowin-en bisita jaso zuten ostiralean albizturtaiek. Aitziber Bilbaok clown emanaldia eskaini zuen Kultur Etxeko areto nagusian. 40 lagun inguru elkartu ziren bertan. Eszenatokia zezen-plaza bihurtu zuen, eta zezen lanak egiteko herritar bat erabili zuen. Hala, bere torero dohainak erakutsi nahi izan

zitu. Honekin eman diote amaiera aurtengo Kultur zikloari. Hala ere, hemendik gutxira beste ekitaldi batez gozatzeko aukera izango dute. Bizkor guraso elkarteak antolatuta, paella jatea egingo baitute uztailearen 3an. Hara joan nahi dutenentzat txartelak salgai daude herriko tabernetan. HITZA

A Agenda

Deialdiak

■ **Albiztur.** Bizkor guraso elkarteak eta Udalak paella jatea antolatuta dute datorren uztailearen 3rako herriko frontoian. Bazkarian paellaz gain entremesak, postrea, kafea eta edaria izango dira. Arratsaldean guztientzako jolasak eta karaokea egongo dira. Txartelak jada salgai daude herriko tabernetan. Helduenak 15 euro balio du eta 12 urte bitarteko umeenak 5 euro.
■ **Anoeta.** San Joan egunaren bezperan, suaren festa ospatzeko herritar talde batek abestuko du. Entseatzeko, bihar geratuko dira, 19:30ean, elizaren ondoan.
■ **Tolosa.** Pirinioetako Culfreda (3.034 m.) eta Suelza (2.974 m.) mendiak igotzeko asmoz, irteera antolatuta du Alpino Uzturre mendi elkarteak uztailearen 9tik 11ra. Izen ematea, elkartearen (alpinouzturre@hotmail.com, Gudari kalea, 5, 943 65 27 89).

Emanaldiak

■ **Tolosa.** Izaskun Arriolaren dantza ikasleen ikuskizuna, 20:30ean, Leidor zineman.
■ **Tolosa.** San Joan suan Tolosako ereserkia (750. urtemugan Kike Ugarte egina) abestuko du

Orfeoia zortzikoa eta beste obra batzuekin. Entsegua 20:15ean Orfeoia erakutsiko.
■ **Tolosa.** Urtero bezala, udako solstizioa ospatzeko kontzertua eskainiko du Et Incarnatus orkestrak Urkizun, Iraolako zuloan (antena-aren parean) 19:30ean. Gonbidatu bereziak ere izango dira.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Ritxi Lizartzak hitanoaren erabilerari buruzko azalpen orokorrak emango ditu 18:30ean, Elduairen Akademiak antolatutako (Gorosabel kalea, 40). Bestalde,

Elduainek Hitano ikastaroak antolatuta ditu, uztailearen 5etik 16ra. 30 ordu, matrikula irekia, goizeko 8:00etatik 11:00etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gozatu Frantziako Tourraz Tropelean!

Abian da tropela.net: tourra, sarean, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea dohainik.

Sarean sartzea, hitza harpidetza irabazteko aukera. tropela.net

P Publiereportaiak

Bertsolaritza herritarrengana hurbiltzeko ekitaldiak

Tolosa » Berto saioa antolatuta du biharko Tolosako Udalak; Zerkausia, 19:30ean da hitzordua.

ERREDAKZIOA

Duela urte batzuk jarri zuen martxan Tolosako Udalak bertsolaritzaren aldeko ekitaldia.

Bertsolari Elkartearekin elkarlanean ari da ekitaldiari forma eta mamia atera asmoz. Helburua, bertsolaritza herritar guztiengana hurbiltzea da. Bertsolaritza herritarrena izatea, azken finean.

Horretarako hiru ekitaldi jarri dituzte martxan.

- Tolosako hiru ikastetxetan, **Lehen Hezkuntza Ahozotasuna eta Bertsolaritza erakusteko konpromisoa.** Honela gazteek, ikastorduan, bertsok nola garatu, sortu eta doinuak nola landu ikasten dute. Euskara irakaslea eta Bertsolari Elkarte bertsolariak tartekatzen dute bertsolaritzaren inguruko tailer hau.

- **Berto Eskola sortu** eta bultzatu du Udalak. Duela bi urte sortu zen proiektuak, aurten adin eta maila ezberdinetako sei berto talde sortu ditu.

- **Bertoak plazan jartzea** da ekimenaren azken fasea. Urte guztian ikasitakoaren emaitza, ohol-tza gainetik herritarrengana hurbiltzeko.

San Joan bezperan, 19:30ean, herritarrek bertsoa gertu izango dute beraz. Zerkausia sei bertsolari ariko dira euren abileziak erakusten. Aitor Mendiluzek, Bixente Gorostidik, Amaia Agirrek, Mikel Artolak, Anjel Mari Peñagarikano eta Jokin Sorozabalek, Iker Iriartek jarritako gaiak jorratuko dituzte.

Berto Eskola sustatu du Udalak; aurten adin eta maila ezberdinetako sei talde sortu dira

Lehen Hezkuntzako ikasleek: Ahozotasuna eta bertsolaritza lantzen dute

Udalak hirugarren urtez antolatuta du San Joanetako berto saioa eta urte luzez egitea da helburua. Emanaldia doan izango da bertsoez, doinuez, gaiez eta giroaz gozatu nahi duen orori zuzendua. Aurrea begira, aspaldi batean Pilariketan egiten zen berto saio hura errepikatzea ere Udalaren nahietan dago.

Euskal kulturaren eta ahozotasunaren adierazgarri den bertsoa Tolosan txertatu nahi du Udalak: Bertsozaletasuna sustatuz. Bertsolariak sortuz. Bertsolaritza mailatuz. Bertsotan edo bertsoaren bueltan tolosarrak plazan bilduz.

Tolosan, Berto Saioa

Bertsolariak: Aitor Mendiluz, Bixente Gorostidi, Amaia Agirre, Mikel Artola, Anjel Mari Peñagarikano, Jokin Sorozabal.

Gai-jartzailea: Iker Iriarte

Ekainak 23, asteazkena / 19:30
Zerkausia, Tolosa ***Sarrera doan**

TOLOSAKO UDALA